



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2021EKO URRIAREN 27KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko irailaren 15eko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko doktore ikertzaile iraunkorraren plaza betetzeko (2021eko urriaren 4ko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholean ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere (<https://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2021eko urriaren 27a.

Errektorea

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA).

30628936C

FEDERICO RECART

(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por

30628936C FEDERICO


RECART (R: Q4818001B)

Fecha: 2021.10.27

09:01:43 +02'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea





Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00155-2. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Arkeologia. Saila: Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia. Ikastegia: Letren Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Elebiduna (gaztelera/ingeleza). Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Arkeologia" eta "Historia Aztertzeko Metodo Arkeologikoa".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: JAVIER GARCIA IÑAÑEZ
NAN: ***2766**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez